



BARREN  
TOKIKOM

**Ziria ala saria?**





BUELTAN DA ELGOIBARKO IZARRAREN

**TONBOLA!**

Aurreko zazpi urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere abenduaren 24an Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Tonbola opariz janzteko, baina, zure laguntza behar dugu. Trukean BARRENEN eta egunean bertan ere, emango dugu zure eskuzabaltasunaren berri. Opariren bat emateko prest zaudetenekok, deitu **943 744 112 / 643 499 169** telefono zenbakietara edo idatzi [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) posta elektronikora abenduaren 9a baino lehen. Eskerrik asko!

643 499 169

943 741 626

[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)




**PINTURA ETA DEKORAZIOA**

**CORDON VILARCHAO**

[cordonvilarchao@telefonica.net](mailto:cordonvilarchao@telefonica.net)  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

**943 740 570 / 636 98 61 62**



**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**Hotzari aurre egiteko aukerarik onena, mora etxeko mantak.**

*Mila esker zuen konfiantzagatik!*

**Sofarako eta oherako mantak.**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



**943 743 704**  
**688 769 657**



Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean

**Galdetu prezioak eta gustura erantzungo dizugu.**

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR



**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**SONY KD50X81 JAEP TELEBISTA**



**499 €**



- TRILUMINOS PRO: kolorearen asetasuna, fiabardura eta dizfira detektatzen ditu, xehetasun bakoitzean tonu naturalak erreproduzitzeko.
- Object-based HDR remaster: sakontasun eta testura handiagoa ematen du irudi errealistagoak ematea lortuz.
- Motionflow XR: Xehetasunak mugimendu azkarreko sekuentzietan.
- Google TV: 700 000 film baino gehiago eta telebista saioak streaming zerbitzuetatik. Google Assistant. Alexarekin bateragarria. Apple Airplayekin / AppleHasieraKit10ekin funtzionatzen du.
- Smart telebista / Bluetooth/ 4 HDMI / 2 USB / 4K HDR prozesor X1.

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte



azaroaren 22tik  
abenduaren 5era

0 eta 12 urte arteko umeren baten guraso, senitarteko, zaintzaile edo hezitzailea bazara eta umeen euskalduntze prozesuan helduok daukagun erantzukizunaren gainean informazioa jaso eta gogoeta egin nahi baduzu ...

etorri *Haurren aurrean, helduok heldu* hitzaldira



Hizlaria: **Paula Kasares**

Paula Kasares (Iruña, 1966) haurren hizkuntza sozializazioaren eta familien hizkuntza politikaren arloetan ikertzailea da.


**Azaroak 9, asteartea**  
**17:00**

**Aita Agirre kulturguneko areto nagusian**

Umeen hurbileko helduen arteko hizkuntza-portaerari eragiteko sentiberatze eta kontzientziatze saio parte hartzailea izango da. Umeen hurbileko helduen hizkuntza-portaeren garrantziari eta estrategiei buruz jardungo dugu.

**OHARRA:** zaintza-zerbitzua izango da. Behar duenak aurretik jakinarazi behar du, azaroaren 8a baino lehen Elgoibarko Izarrara deituta (943 741 626).





ALEX SEGADE

Ikaslea

## Making of

Goizean ama, amona eta izeba aitonaarengana doaz lo-reak jartzera. Ni aurten ez noa, atzo lagunekin saskibaloiko sesio bat antolatu nuen eta ezin dut nire hitza jan. 12:00etan goaz. Iritzi testua arratsalderako utziko dut orduan, ea inspirazioa aurkitzen dudan edo. Goiza pasata eta bazkaldu ostean eguzkiak hor jarraitzen duela aprobe-txatuz, motorra errepidera ateratzea erabaki dut. Bartzelonan ikasten nagoenez, ez ditut izaten motorra pizteko aukera asko eta ezin diot gogo horri eutsi. Azken alditik hilabete pasatu da. Bueno ba testuak itxaron beharko du, inspirazio bila nabil oraindik, edo hori uste dut. Aitzaki klasikoa inspirazioarena, gaiak edo hitzak ez direnean etortzen.

Azken finean, zer demontre idatzi ez dakizu, baina era fin batean esanda ondo geratzen da.

Errepidetik bueltan, orain bai, idazteko garaia iritsi da. Jadanik ezin dut gaurko auzia gehiago luzatu. Inspirazioarekin edo inspirazio gabe idatzi behar dut behingoz. Unibertsitateko irakasle batek, erreportaje nahiko luze bat idazteko eskatzeaz gain, erreportaje hori nola idatzi genuen ere azaltzea eskatu zigun ikasleoi. Ideia nola bururatu zitzaigun azaldu behar genuen, testuan agertzen zen jendea nor zen azaldu, zein zailtasun izan genituen... hori guztia. *Making of* deitzen zion irakasleak. Lerroen atzean dagoen lana azaltzea besterik ez da. Nola hasiko dut testua? Astelehena da. Astelehen berezia...

Astelehena da. Astelehen berezia. Santu Guztien Eguna ospatzen denez zubi dotore bat geratu zaigu. Ze ondo! Gainera eguraldi ona dago, eguzkiak jotzen du, baina tenperatura ederra da. Aste honetan nire txanda da BARRENEN idazteko. Nola ez, beti bezala, gai gabe nago eta gaurkorako zer-bait bururatu behar zait. Ez nau harritzen egoera honetan egotea, ez da lehenengo aldia egia esan. Baina bueno, konpon-tzen naizela uste dut.

*“Aitzaki klasikoa da inspirazioarena, gaiak edo hitzak ez direnean etortzen”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Sustututzailearen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik.

**KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olazola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► KLIMA EZ DA NEGOZIOA!

Azaroaren 12raino Glasgoven ospatuko den klima aldaketaren inguruko konferentziaren harira, Euskal Herriko hainbat talde ekologista eta sindikatu COP26 aldaketaldia plataforman batu dira. COP26 Aldaketaldia Plataforma Euskal Herriko 18 talde ekologistek eta LAB, ELA, STEILAS, ESK, CCOO, CGT-LKN Bizkaia eta Etxalde Nekazaritza Iraunkorra sindikatuek, gazte mugimenduko eragileek, auzo elkarteek eta bestelako elkarteek osatzen dute.

COP26 konferentzian parte hartuko duten agintariei material eta energia kontsumoaren murrizketa demokratikoki planifikatzea eskatu diete zehazki COP26 Aldaketaldiko eragileek. Horretarako, planetaren mugekin talka egiten duen hazkunde ekonomikoaren bidea alde batera utzi behar dela azpimarratu dute.

COP26 Aldaketaldiko eragileek klima larrialdiaren kontra borroka globala izanik ere tokian tokiko erantzunak behar direla azpimarratu dute. Hori horrela, Euskal Herrian egiten diren hondakin, biodibertsitate eta lurralde antolaketa edota energia politikak larrialdi egoera globalarekin zerikusi zuzena dutela salatu dute.

Testuinguru honetan, hainbat ekimen antolatu dituzte azaroaren 12raino, eta nagusienak azaroaren 6an izango dira. Aipagarrien artean, larunbatean Donostiako Kontxako hondartza Larreko Mahaiak antolatuta egingo den elkarre-

taratzea da. Goizeko 11:30ean, 100 metro luze eta 10 metro zabaleko neurrian *Klima ez da negoziua* lema osatuko da. Horretarako aterkiak eramateko eskatu dute. Helburua mosaiko erraldoi bat egitea da. Beraz, animatu zaitzete, ingurumenak eta guztion osasunak eskertuko dute-eta!

Z.A.I.

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datoren eskutitzik argitaratuko.

## Zeanuriko Ipinaburu gaztagilearen gazta apartatu dute onenentzat Elgoibarko Gazta lehiaketan, hamalauren artetik

Hileko azken zapatuko feriaren barruan egin zuten zapatuan Elgoibarko XXIX. Gazta Txapelketa, Kalegoen plazan. Kalamua Elkarateak antolatzen du lehiaketa hau, eta sanbartolomeetan egiten da, baina azken bi urteetan bertan behera geratu da koronabirusaren pandemiagatik. 2019ko jaietan egin zuten azkenekoz, eta orduan, Mausitxak irabazi zuen. Zapatukoan, baina, sari nagusia Bizkai aldera joan zen. Hamalau partaide izan ziren, eta Zeanuriko Ipiñabururen gaztari eman zion sari nagusia epaimahaiak 330 punturekin. Garaipen honi esker, Gabon Zahar feria egunean egiten den Urteko Gazta Onenaren txapelketan lehiatzeko aukera izango du. Bigarren lekuan Mausitxa sailkatu zen 318 punturekin, eta hirugarrena Aiako Agerreburu izan zen 303 punturekin. Epaimahaiakideek lehiaketara aurkeztu zituzten gazten kalitatea nabarmendu zuten.



## Heriotzaren eta doluaren inguruan hausnartzeko ekimenak antolatu dituzte Elgoibarren azarorako



Almaur, Elgoibar Lagunkoia eta Morkaiko Mendizale Elkaratearekin elkarlanean *Heriotzari bizia ematen* ekimena jarri du abian Elgoibarko Udalak, bigarren urtez. Martitzenetik, *Hil aurretik nahi dut...* izeneko mural bat jarri dute Aita Agirre kulturegoko sarreran eta azaroaren 12ra arte egongo da bertan, herritarrek beren bizitzetara buruz hausnar dezaten. Azaroaren 10ean, berriz, *Aulki hutsak* dokumentala emango dute Kultur Etxeko hitzaldi gelan eta heriotzari eta doluari buruzko dokumentalaren gainean gogoeta egingo dute gero. Azaroaren 12an, berriz, *Mendian hil hirian hil* dokumentala emango du Morkaiko Mendi Tour ekimenaren barruan, 21:00etan, Herriko Antzokian. Ildo beretik, Heriotzari bizia ematen jaialdia ere antolatu dute [www.dandovidaalamuerte.org](http://www.dandovidaalamuerte.org) plataformaren baitan dauden Espainiako estatuko hainbat elkarterek, tartean Almaurrek. Azaroaren 1etik 7ra bitartean egingo dute hori, eta Elgoibarko Udalak telematikoki parte hartzera gonbidatu ditu herritarrek.

Irristagaitzago egiteko tratamendua emango dute zenbait kaletan

Elgoibarko hainbat kaletan tratamendu berezia emango dute, lurra hain labainkorra izan ez dadin. Kalegoen plazan, Errosario kalean eta San Bartolome kalean hasiko dituzte lanak, baina kale gehiagotara ere zabalduko dituzte. Lehenengo, desinkrustatzaile industriak aplikatuko dituzte zoladuran, ondoren porositatea sortzeko disoluzio irristagaitza aplikatzeko. 30.000 euroko aurrekontua dute obrek, BEZik gabe. Guztira, 5.500 metro koadroko azalera emango dute tratamendua. Aurtengo prozesu parte-hartzaileetan herritarrek eskatutako lanak dira.

Azaroaren 20an Bilbon egitekoa den manifestazioaren atariko ekitaldia antolatu du EHBilduk

Azaroaren 20an, Franco diktadorearen heriotzaren urtemuga egunean, Bilbon egitekoa duten manifestazio nazionalera deitu du Elgoibarko EHBilduk. Aurrez, baina, ekitaldia antolatu dute zapaturako. Kalegoen plazan izango da, 13:00etatik aurrera. Musikaz girtuko dute, mokadua emango dute eta photocalla ere izango da, argazkiak ateratzeko.



## Etxe bakoentzako neguko ostatu zerbitzua jarriko dute martxan eskualdeko udalek

**E**txerik gabe eta bazterketa egoeran dauden pertsonen neguko gauak pasatzeko ostatura izan dezaten, hitzarmena sinatu dute Debabarreneko udalek. Eta zenbait hilabetez eraikin egokia topatzeko gestioak egin eta gero, Eibarko Udalak eskualdeko gizarte-zerbitzuen eskura jarri du Eibarko Karmengo elizako gunen bat (Karmen kalea, 2). Eskualde osoari emango diote zerbitzua han eta "muturreko eguraldia" egiten duen neguko hilabeteetan etxerik gabeko pertsonen ohe bat eta bainugela eskainiko diete.

Ez da aterpe iraunkor bat izango, etxe gabek aldi batez erabili ahal izango duten zerbitzua baizik. Eibarko Udalak Karmengo Elizaren eraikinaren jabe den ordena erlijiosoarekin adostutako akordioaren arabera, Karmeldarrek doan lagako dute espazio hori, garai batean erlijiosoen gelak izan ziren espazioa, eta gehienez 18 lagunentzako lekua izango da bertan.

### Finantziarioa

Neguko dispositiboaren kudeaketa ekonomikoaren eta administratiboaren ardurua Eibarko Udalak hartuko du, baina Debabarreneko gainerako udalek Eibarko Udalari ordaindu beharko diote kudeaketaren kostuaren zenbateko bat. Zerbitzu horren ondoriozko gastuak honakoak izatea aurreikusten da: egokitzapena, ekipamendua; dispositiboa mantentzeko, kudeatzeko eta martxan jartzeko gastuak; eta, horietan sartzen diren garbiketari, mantentze-lanei eta zaintzari dagozkion gastuak eta gizarte-hezkuntzazkoak. Kostu hori udalerrri denen artean ordainduko dute, eta ordaindu beharreko zenbatekoa biztanle kopuruari lotua egongo da. Elgoibarrek, esaterako, 11.468 biztanle ditu eta zerbitzuaren %20,60 finantzatuko du. Mendarok, %3,56, eta gainerako herriek: Eibarrek 49,54%, Sorluzek 7,01%, Mutriku 9,49%, eta Debak 9,805%.

## Garbiguneetan estalkiak jarri ditu Mankomunitateak tresna elektriko eta elektronikoak babesteko

"Hondakinak biltzeko zerbitzua hobetzeko eta tresna elektriko eta elektronikoak euri uretatik babesteko", estalkiak jarri ditu Debabarreneko Mankomunitateak eskualdeko Garbiguneetan. Aparatuok ez bustea nahi da, berrerabiltzeko eta birziklatzeko moduan egon daitezen gero.



Erreka eta Hirigintza enpresek egin dituzte estalkiak eta 41.457,66 euroko kostua izan dute. Inbertsioaren %50 Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko du bere gain. Mankomunitateak jakinarazi dute era honetako 187.292 kilo hondakin bildu zituztela iaz, eta 2021eko abuztua bitartean, berriz, 123.014 kilo.

## Udazkeneko bono kanpaina astelehenean hasiko da

*Elgoibar Bizi-bizixa* udazkeneko kanpainako bonoak astelehenean jarriko dituzte salgai 41 establezimendutan. Udalak 30.000 euro inbertitu ditu kanpaina honetan, eta guztira 3.000 merkataritza-bonu egongo dira herritarren eskura. Herritarrek %30eko deskontua eskuratu ahal izango du egindako erosketetan. Informazio osatua [barren.eus](http://barren.eus) atarian.

## Artilea nola egiten den azaltzeko tailerra bihar, Makina Erremintaren Museoa

Antzinako ogibideak erakusteko jardunaldiaren barruan, artilea eskuz nola egiten den erakutsiko du bihar, azaroak 6, Lasturko Goikola baserriko Karmen Esnaolak Makina Erremintaren Museoa. Esnaolak 40 urte daramatza artilea eskuz ekoizten eta osagai naturalak erabiliak tindatzen. Joan nahi duenak izena eman beharko du [museoa@museoa.eus](mailto:museoa@museoa.eus) helbidera idatzita edo 943 748 456 telefono zenbakira deituta.

## Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, hilak 5, Elgoibarren

Elgoibarko Odol Emaileen Elkartetik jakinarazi dute gaur, azaroak 5, egingo dituztela odol ateratzeak Elgoibarren, jubilatuen lokalean. 16:30etik 20:10ak bitartean arituko dira osasun arloko profesionalak lanean, baina antolakuntza lanak errazteko aurrez izena emateko eskatu dute elkartetik. Asteazkenaz geroztik ari dira ordua ematen. Ordua eskatzeko 623 328 408 telefono zenbakira deitu behar da, edota bestela whatsapp idatziz, 15:00etatik 20:00etara bitartean. Azaroaren 26an, bestalde, ez da odol ateratzerik egongo.

## Elgoibarko HRE Hidraulic enpresak irabazi du 'On Ekin' enpresa ideia eta proiektu lehiaketa

Elgoibarko HRE Hidraulic enpresak lehen saria eskuratu du *On Ekin* enpresa-idea eta proiektuen lehiaketan. Ekingunek, Debabarreneko ekintzaileen arteko lankidetzeta eta sustapenerako elkarteak, antolatzen du *On Ekin* lehiaketa, eta azaldu dutenez, helburua da enpresen eta ekintzaileen ekimenak sustatzea eta gure ingurunearentzako enplegu gehiago eta aberastasun handiagoa sortzea. Horrekin batera, sormena sustatu nahi dute, eta pertsonen zein enpresen ekimenak bultzatu, merkatuan funtzionatzeko zantzuak dituzten negozio-konzeptuak jasotzen dituzten proiektuak eta ideiak lantzerantz bultzatuta. Aurtengo ekitaldira bost proiektu aurkeztu dira eta epaimahaiak Elgoibarko HRE Hidraulic enpresak aurkeztutako MANEX 4.0 enpresa ideari eman dio sari nagusia. Egitasmo horrekin, bezero industrialei euren prozesuak kontrolatzen lagundu nahi diete, makinaren fidagarritasuna eta erabilgarritasuna ziurtatuz. Enpresako kudeatzaile Esther Velascok jaso zuen saria Eibarko Armeria Eskolan egin zuten sari banaketa ekitaldian. *On Ekin* sariarekin, 1.000 euro irabazi ditu proiektuak.

Lehiaketaren antolatzaileek jakinarazi dutenez, edizio guztiak kontuan hartuta, 83 enpresa ideia eta proiektu aurkeztu dira, eta horietako batzuek martxan dauden enpresak dira egun, besteak beste: Eibarrooms, Arkigreen, Adarabar, Xaxa eta ScrapAd.



## Mendaroko Udalak 2022rako tasak eta zergak izoztea erabaki du, salbuespen batzuekin

Mendaroko Udalak 2022rako ordenantza fiskalak ez igotzea erabaki du, bi salbuespenekin: %1,5 igoko dituzte Ondasun Higienezin Gaineko Zerga (IBI) eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga. Azken hilabeteetan Covid-19aren krisiak eragindako bilakaera ekonomikoa aztertu ostean hartu du erabakia Udalak, eta erabaki horrekin batera, 2021eko zerga-onurak, hobariak eta gaur egungo zergadunei ordaintzeko erraztasunak mantentzea adostu dute. 2022an familia ugariak %90 arteko hobaria izango dute Ondasun Higienezin Gaineko Zergan, estreinakoz. Mendaroko Udalak irisgarritasun eta energia berriztagarrien aldeko apustua egin du, eta bide horretan, Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zergan honako hobariak izango dituzte mendarotarrek eskura lehenengoz: Kuotaren %80ko hobaria izango dute, eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak aurreikusiko duten obrek eta obra-zatiek, eta kuotaren %50eko hobaria izango dute babes ofizialeko edo bereziko erregimenean egingo diren etxebizitzaren promozioek. Hobaria %25ekoa izango da etxebizitza tasatuko erregimenean egiten bada. Udalbatzak, bestalde, tarifa berria onartu du auto-taxi zerbitzurako: Gipuzkoako Taxi Elkarteak proposatutako igoera kontuan hartuta, 2022rako igoera %2,9koa izango da. Informazio guztia [www.mendaro.eus](http://www.mendaro.eus) webgunean kontsultatu daiteke.

## Kinto ospakizunak ere itzuli dira

Pandemiaren gogorrean eten ziren kinto ospakizunak ospatzen hasi dira berriz elgoibartarrak. Joan zen zapatuan 2022koak egin zuten, eta inon iragarri gabeko Mauxitxa txarangaren kalejirak ospakizunetan ari ziren gazteekin topo egin zuten Maalako parkean, denak dantzan eta kantuan jarritik.

Azaroaren 13rako, bestalde, 81eko kintoen ospakizuna antolatu dute. Aurten 40 urte egiten dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute Belaustegin. Autobusa jarri dute igotzeko, eta arratsaldean Dja eta pin-txo afaria ere egingo dira. 00:00etan izango dute itzulerako autobusa. Interesatuak 75 euro sartu beharko dituzte, Kutxabaneko kontu honetan: ES42 2095 5036 50 9121087531





## Buru osasunari buruzko ikastaroa emango dute gazteentzat

**G**ipuzkoako Foru Aldundiak eta Elgoibarko Udalak elkarlanean antolatu dute ikastaroa, TREBA Gazteak Ahalduzte Eskolaren baitan. Treba Gazteak 18-30 urte bitarteko Gipuzkoako gazteei beren ahalduzte-prozesuan lagunduko dien prestakuntza-erakundeak da, lana/bizitza binomioan, bigarrena ardatz duena. Programa horren xedea da gazteen emantzipazioko, garapenerako eta hazkunde pertsonal eta kolektiboko prozesuak sortu eta finkatzea. Tailer honetan buruak nola funtzionatzen duen ikusteko ariketa egingo dute. Dinamika ezberdinen bitartez auto-ezagutzaren bidea hartuko dute, norberaren buru osasuna hobetzeko helburuarekin. Azaroaren 16an izango da, 17:30etik 20:30era, Elgoibarko kultur-etxeko Sotoan. 18-30 urte bitarteko Elgoibarko eta Gipuzkoako gazteei dago zuzendua eta Ainhoa Urretagoiena izango da trebatzailea. Doakoa da eta euskaraz emango dute. Izena azaroaren 14a baino lehen eman behar da lotura honetan: <https://labur.eus/TREBAElgoibar>.

## Alex Izagak irabazi du Kultur Kafeko bideo jokoen txapelketa

Super Smash Bros Ultimate bideo joko txapelketa antolatu du estreinakoz Kultur Kafek, eta Alex Izagak irabazi du. Ibai Rua izan zen bigarrena, Alex Sierra sailkatu zen hirugarren lekuan eta Kaiet Ruak egin zuen laugarren. Antolatzaileek esan dutenez lagun giroan joan zen ekitaldia, eta partaideek kiroltasun handia erakutsi zuten. Gustura geratu dira ekimenak izan duen erantzunarekin, eta seguruenik, urtarrian errepikatuko dutela aurreratu dute, "sari hobeeekin gainera".

Kultur Kafea, bestalde, Gipuzkoako I. Pintxo, Banderilla eta Miniaturazko Txapelketan parte hartzen ari da, eta finalerdietarako sailkatu da. Kultur Kafeko arduradunak azaldu du fede handiegirik gabe eman zutela izena eta pozez hartu dutela sailkapenaren berria. Azaroaren 23an jokatuko dute finalerdia, Gipuzkoako Ostalaritzaren Egoitzan.



## Gaugeroaren batzarra, astelehenean

Gaugeroa Duintasuna pentsiodunen elkar-tek batzarra egingo du azaroaren 8an. Besteak beste ondorengo gaiak izango dituzte hizpide: anbulatorioa, San Lazaro eta Pilar egoitzak, pentsioak, autobus zerbitzua, komunak... 19:00etan izango da batzarra, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## Bi hitzaldi, Jubilatuen Biltokian

Jubilatu biltokiak bi hitzaldi antolatu ditu datorren asterako: astelehenean ondasunen testamentuari buruz hitz egingo du Elgoibarko Notaritzan lan egiten duen Esther Mujikak, eta eguaztenean, Edurne Uranga eta Eduardo Tamayo medikuak sintronaren autokontrolari buruz jardungo dira. 16:30ean izango dira bi saiok, eta parte hartzeko ezinbestekoa da Covid19-aren aurkako txertoa hartuta izatea eta musukoa eramatea.

## Julia Larrañaga omendu du Mendaroko Udalak, 100 urte egin dituelako



Julia Larrañaga Garate mendaroarrak 100 urte bete zituen azaroaren 1ean, eta mendeurrenaren harira, Mendaroko Udalak lore sorta bat oparitu dio. Iñaki Arregi alkateak zorion mezua eta besarkada estua helarazi dizkio herri osoaren izenean. Agarre-Txiki baserrian jaiotako Julia Larrañaga eta Sahatzu-azpiko baserrira ezkondu zen gero Pedro Aranberri Arakistainekin, Itziarke Isasi baserriko semearekin. Bi seme eta alaba bat izan zituzten.



# Arimen eta beldurraren gaua.....

Beldurrezko mozorro ikusgarriak alboratzen saiatu eta Euskal Herrian aspaldikoa den ohitura berreskuratzeko ahalegina egin dute Elgoibarren eta Mendaron herriko hainbat eragilek Arimen Gauaren bueltan. Ez da erraza Estatu Batuetako moldetik eta saltoki handien dizdiratik ihes egitea, baina bidea urratzen jarraitu nahi lukete gero eta herri gehiagotan. Balorazioan ere horixe jaso dute Elgoibarren, esaterako. Herritarrek egindako harrerarekin oso gustura agertu dira antolatzaileak, parte-hartzea handia izan delako bi herrietan.

Eragile ezberdinen artean prestatu dute aurten Elgoibarren Arimen Gauako ospakizuna, eta pozik agertu dira guztiak ekintzetara batu den jendetza ikusita. Bi-hiru egunez kalabazak husten eta mozorroak prestatzen jardun ziren haurrak ludotekan joan zen asteen, Arimen Gauak horixe duelako ezaugarrietako bat, kandlekin argizatutako kalabazak erabiltzea jendea beldurtzeko. Oso berea duen beste ezaugarri bat ere badu, baina, Domu Santu bezperaz ospatu ohi den jaiak: udazken-neguetako festetan ohikoak diren eske errondak. Domekarako deitu zuten Elgoibarren eske errondara, baina horren atariko moduan, barikuan, dantza parte hartzaileak egin zituzten plazan. Beltzez jantzita eta buruak zapiz estalita jardun ziren dantzan, hildako arbasoen oroimenez, eta domekan, gozoki eskean irten zen ume saldoa kalera, kantuan. Mendaron ere, Arimen Gauerako mozorroak prestatzen eman zuten astea haurrek ludotekan, eta domeka iluntzean, haitzulo beldurgarria zabaldu zuen Arno Guraso Elkarteak, Garagartzako elizpean. Katasorginaren ipuina entzun, eta ume eta nagusi ugari ausartu ziren haitzuloan sartzera, katasorginaren bila. Aurrez, jolasak egin zituzten frontoian.











## Haitzulo beldurgarrian, Katasorginaren bila

Garagartzako elizpeko eskuin hegal osoa haitzulo beldurgarri bihurtu zuten Arno Guraso Elkartekoek domekan, Udalaren laguntzarekin. Ordu t'erdiz izan zuten haitzuloa zabalik, 19:00etatik 20:30ak bitartean, eta jendetza handia pasatu zen bertatik. Atzean, asteetako lana zegoen. Olatzeko (Mutriku) Urrestieta baserriko arto-saileko arto-lastoa batzea izan zuten lehenengo lana. Harekin osatu zutelako ibilbidea, plastiko beltzez ilundutako elizpeko hormez barrura. Bidean, mamu eta sorgin, dozena bat pertsonaia beldurgarrirentzako lekuak atondu zituzten, eta haien artean katu beltz bat ere ezkutatu zuten. Izan ere, gauaren iluntasunean, huraxe topatzeko erronka jarri zieten arnokideek haur eta gurasoei. Katu beltza, Mendaroko katasorginaren omenez.

Horretarako, haitzuloa zabaldu aurretxoan, Katasorginaren ipuina kontatu zien arnokide batek Garagartzara batu zirenei. Mendaroko santanak hasi ohi dituen pertsonaia da Katasorgina eta haren inguruko ipuina Jose Migel Barandiaranen liburuan jasoa dago. 1925. urtean Sasiolako Simon Ansolari entzun zion ipuina Barandiaranek, baina Mendaroko Aran Errekako baserrietan, Etunpekoetan eta Bustinballekoetan ere kontatu izan dute. Ipuinak dio Lizundia baserriko emakumei katu bat agertzen zitzaizela gauero bazterrak nahastera, goruetan ari zirela. Hala, etxeko gizonari kontatu ei zioten emakumeek eta hura, katua harrapatzeko asmotan, jarri ei zen gau batez artilea iruten, emakume arropak jantzita. Gauean, ohi legez, agertu zitzaizen katua eta galdetu ei zion gizonari: "Bizarra eta goruetan?", eta gizonak erantzun: "Katua eta berbetan?". Eta hartu ei zuen gizonak katua eta bota ei zuen hormaren kontra. Biharamunean, Mendaroko Sillerueneko emakume edadetu bat besoa hautsita esnatu ei zen [Garai batean Arboleta taberna zegoen lekuan zegoen kokatua Sillerueneko etxea, Garagartzan]. Adi-adi entzun zuten haurrek ipuina, eta haitzuloran katua topatzeko erronka jarri zien emakume edadetuaren paperean ari zen arnokideak. Erronka entzun zuten, baina bukaeran, bakarren batzuek baino ez zuten aitortu katua ikusi izana. Beldurrak arinak ditu hankak, eta haitzulotik lehenbailehen irtetea lehenetsi zuten gehienek.

Arno guraso elkartetik eskerrak eman dizkiete domekan haitzulora gerturatu zirenei, bai eta aurrez, arratsaldean, frontoian antolatu zituzten jolasetara gerturatu ziren guztiei ere. Eta esker on berbak izan dituzte baita ere, haitzuloa prestatzen lagundu zieten, bai eta egunean bertan pertsonai beldurgarrien azalean jarri zirenei ere: Urrestieta baserriko Andonegi Astorkia sendia, Azibar Iraolagoitia, Yulia Prokopenko, Maitane Arrinda, Vanesa Mateos, Helenka, Anuska eta Lukene Revert, Irantzu Urkia, Haizea Aranbarri eta Ainara Txurruka. Bideoa: [barren.eus](http://barren.eus)





## ▶ Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailak 2,1 milioi euro inbertituko ditu Mendaroko tren geltokia hobetzeko

Mendaroko tren geltokia berritzeko obrak luze gabe hasiko dituztela zabaldu du Jaurlaritzako Garraio Sailak. Nasen arteko trenbide-pasagunea kentzea, alde banatan igogailu bana izango duen oinezkoentzako gaineko pasabidea eraikitzea, estazioaren inguru osoan bidea berritzea eta erdiko nasa iparralderantz ia metro batean zabaltzea dute aurreikusita (hiru metrora arteko zabalera hartuko du). Obrak Comsa-Jaizubia Aldi Beterako Enpresa Elkarteari esleitu dizkio Eusko Jaurlaritzak, 2.191.545 euroren truke. Administrazio-izapideak bukatutakoan hasiko dituzte lanak, "urtea amaitu aurretik", eta hamabi hilabeteko epea izango du enpresak obra gauzatzeko.


Trenbide-azpiegiturak bateratu nahi ditu Garraio Sailak, batetik, eta bestetik, bidaiariak erosoago mugitzeko bidea egin. Berritu beharreko trenbide-zatia trenbide metrikoa da balastoan. 45 kg/m-ko errailarekin ekipatuta dago bidea, eta egurrezko trabesen gainean dago muntatuta. Material horiek guztiek, baina, 22 urte inguru dituzte, 1998an instalatu zituztelako. Eta hori da berritu asmo dutena. Hori guztia kendu eta hormigoi armatuzko eta aurrez atezatutako trabesa monoblokeen gainean soldatutako UIC54 errail jarraituak jarriko dituzte.



### Mendaroko geltokiaren ezaugarriak

Gaur egun, bi nasen arteko balasto gaineko trenbide bikoitz batek eta erdiko nasaz beste alderako balasto gaineko bazterbide batek osatzen dute Mendaroko geltokiko trenbide-plataforma. Eta geltokira sarrera bakarra dago. Donostiarako tren hartu nahi dutenek trenbidetik bertatik igaro behar dute beste nasara, eta hori kendu nahi dute, joan-etorri handiko geltokia delako Mendaro. Garraio Saitetik zabaldu dutenez, Euskal Trenbide Sareak 108 trenbide-pasagune ditu gaur, horietatik 71 Bizkaian eta gainerako 37ak Gipuzkoan, eta iazko ikasturtean, horietako 51 kendu zituzten: 35 Bizkaian, eta 16 Gipuzkoan. Azkeneko hamar urteotan, Eusko Jaurlaritzak ia 1.000 milioi euro inbertitu ditu bere eskumeneko trenbide-sareko azpiegitura hobetzeko.

Bada, trenbide gainetik bertatik ibiltzea eragozteko, gaineko pasabide bat eraikiko dute orain, 2 metroko zabal eta 8,3 metroko luze izango dena. Eta pasabide horrek igogailu bana izango du alde banatan. 5 metroko altuerara joango da goiko pasabidea, eta 5 metroko altuera horretaraino igoko dira igogailuak. 630 kiloko karga hartuko dute gehienez igogailuek, zortzi lagun. Igogailuaz gain, baranda metalikodun eskailerak ere eraikiko dituzte pasabidera igotzeko. Eskailerek 12 mm-ko sendoera duten polikarbonatozko pantailak izango dituzte trenbiderako aldean, oinezkoek ez dezaten katenaria ukitzeko arriskurik izan.



*Oinezkoentzako goiko pasabidea eta igogailuak.*

### Udalaren "sorpresa"

Mendaroko udalbatzaren joan zen aste osoko bilkuran aipatu zuten gaia, gai-ordenatik kanpo. Iñaki Arregi alkateak esan zuen prentsa bidez jakin dutela Garraio Sailak Mendaroko geltokia berritzeko obrak hastekoak dituela eta argibideak eskatuko dizkiotela esan zuen. Obra beraren ezaugarriak jakin gabe, geltokia berritzea onerako izango zen ustea agertu zuten Udalean ordezkariak duten hiru alderdietako ordezkariak eta eskaera bat ere egin zuten EH Bildutik: Santa Anara bidean dagoen pasagunea seguruago egiteko. Horrenbesteko inbertsioa egin behar duenari pasagune hori babesteko exijitu behar zaiola esan zuen Enez Ezenarro EH Bilduko zinegotziak, puntu horretan izan diren arrisku egoerak gogorazita, eta bat etorri ziren alkatea eta bilkurara bildutako zinegotzi guztiak ere. Santa Anara joateko ez ezik, Olabaza baserrira joateko ere trenbidea gurutzatu behar da, eta tratatu izan dira autoak.

# Konpetentziak lehian

**Lanbide Heziketako Eusko Skills olinpiadak jokatu dituzte Irungo Ficoba aretoan Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko hainbat ikastetxek, eta partaideen artean Elgoibarko Lanbide Heziketako bi zentroetako ordezkariak ere izan dira. IMHko eta Mekako hamar ikaslek hartu dute parte nork bere konpetentzietan, eta ikasle horietako batzuk podiumera igotzea ere lortu dute gainera. IMH eta Meka dira Elgoibarren Lanbide Heziketako formazioa eskaintzen dutenak, eta Elgoibarko ikasleek ez ezik, inguruetako herrietatik ere etortzen dira asko, ofizioak ikastera. Eusko Skills olinpiadetan parte hartu duten ikasleetako batzuk ekarri ditugu orriotara, eta lehiaketako esperientzia kontatzeaz gain, Lanbide Heziketaren aldeko hautua egitearen arrazoiak azaldu dizkigute.**

- AINHOA ANDONEGI -

Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzak antolatzen ditu bi urtetik behin Eusko Skills olinpiadak, eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko Lanbide Heziketako zentroek hartzen dute parte. Hiru egunez ikasle bakoitzak bere espezialitateari dagozkion skills edo konpetentziak jartzen ditu proban, bere buruarekin eta gainerako ikasleekin lehiatuz. Aurtengoan 146 ikaslek hartu dute parte, 19 espezialitatean banatuta. Elgoibarren erdi mailako eta goi mailako Lanbide Heziketako formazioa eskaintzen duten bi zentro ditugu, IMH eta Meka, eta bi zentroetako hamar ikasle aritu dira lehian. IMHtik ondorengo ikasleek hartu dute parte: Idoia Royo eta Maialen Gorostidi (Mekatronika), Iker Zubeltzu eta Jokin Andorregi (CNC fresaketa), eta Ander Torquemada (CAD diseinu industrial). Meka Lanbide Heziketa eskolatik, berriz, hauek: Maddi Escudero eta Naroa Jimenez de los Galanes (Erizaintza), Noemi Torrejón (galdaragintza), Maddi Etxabe (elektromekanika), eta Antton Gisasola (karrozeria). Bost ikasle batu ditugu orriotan, eta bakoitzak bere esperientzia azaldu digu.

## IDOIA ROYO ETA MAIALEN GOROSTIDI.....

Idoia Royo (Aia) eta Maialen Gorostidi (Zarautz) IMHko ikasleak dira. Goi Mailako Mekatronika moduloa ikasten ari dira. Makinen muntaketan eta mantentzean lan egiteko prestuz ari dira, ikasketa formazio dualean, hau da, ikasi eta lanean. Maialen mantentze lanen alorrean ari da bereziki, eta Idoia, muntatzailea da. Astean egun batzuk eskolan pasatzen dituzte, eta beste egun batzuetan enpresara joaten dira lanera. Biek argi zeukaten Lanbide Heziketa ikasi nahi zutelako, ikasketa "praktikoak" egin nahi zituztelako. Maialenek Batxilergoa egin zuen, baina unibertsitateko bidea hartu beharrean, goi mailako lanbide heziketako modulo bat egiteko hautua egin zuen. Robotika egin zuen lehenengo, eta IMHn egiten ari den Mekatronika bere bigarren goi mailako moduloa da. Idoia Royori betidanik gustatu izan zaizkio makinak. Familiako enpresa bat dute eta han lan egiteko prestatu nahi zuen bere burua. Osabak gomendatu zion Mekatronika ikastea, eta Elgoibarko IMHn egiteko esan zion: "Zarautzen ere badago Lanbide Heziketa eskola, baina IMHk izen ona zeukala esan zidan osabak eta horregatik erabaki nuen Elgoibarrera etortzea". Gizonezkoak izaten dira bereziki Lanbide Heziketarako

bidea hartzen dutenak, gaur gaurkoz oraindik ere mundu hau gizonezkoena den ustea oso zabaldua dagoelako, baina emakumezkoak gero eta gehiago dira. Maialenen ustez hori poztekoa da: "Gutxi gara oraindik, gure gelan gu biok bakarrik gara emakumezkoak, baina lehenengo mailan hasi dira neska gehiago eta horrek poza ematen du". Idoia Royoren ustez, neskek ez daude lekuz kanpo Lanbide Heziketan: "Tailerrean ni naiz neska bakarra, baina oso ondo hartu naute, eta gelan ere oso integratuta gaude". Mekatronika moduloko ordezkariak izan dia biak Eusko Skills olinpiadetan, eta esperientzia abe-



Ander Torquemada, Maialen Gorostidi eta Idoia Royo



rasgarria izan dela nabarmendu dute: "Gure alorreko konpetentziak demostratzera joan ginen eta oso interesgarria izan da". Hiru eguneko ariketa izan zuten, eta zirudiena baino sinpleagoa bazen ere, arazo mekaniko batzuk izan zituztela adierazi dute: "Ez zigun denborarik eman ariketak nahi bezala probatzeko". Mekatronikan lehiatu ziren neska bakarrak izan dira aurtengo edizioan, eta komunikabideen begirada guztiak euren gain igarri zituztela esan dute: "Gehiegizkoa izan zen, denek nahi zizkiguten argazkiak atera, grabatu egiten gintuzten eta apur bat gogaikagarria izan zen".

## ANDER TORQUEMADA .....

Ander Torquemada elgoibartarra diseinua ikasten ari da IMHn. Batxilergoa amaitu ostean unibertsitate ikasketak hasi zituen, baina berehala konturatu zen ikasketa haiek ez zirela berezako modukoak. Urtebetez egon zen Ingeniaritza Elektronikoa eta Automatiko Industrialak ikasten Donostian, baina ez zuen bere lekua aurkitzen. Hala ere, marrazketa ikasgaia gustatu zitzaion, bereziki, SolidEdge programaren bidez egiten den marrazketa. Kuadrillako batek esan zion bera IMHn ari zela diseinu ikasketak egiten, eta han ere programa hori bera erabiltzen zutela: "Nire lagunak esan zidan oso gustura zegoela IMHn, eta horregatik erabaki nuen unibertsitatea laga eta honako bidea hartzea". Bigarren mailan dago, eta sistema dualean ari da Torquemada ere. Goizez eskolara joaten da, eta arratsaldean, enpresara: "Eguna luze egiten zait, baina oso interesgarria da sistema hau, gelan ikasten duguna praktikan jartzeko aukera eskaintzen duelako. Unibertsitatean praktikak falta dira, eta hemen horretarako aukera asko eskaintzen dute". Ikasketa hasieratik enpresarekin harremanetan egotea "positiboa" iruditzen zaio, modu horretan enpresak ikaslea ezagutzen duelako, eta "maila ona ematen baduzu praktiketan, bertan lanean geratzeko aukera ere egoten da askotan". Gustura dago eskolan, gustura enpresan eta gustura geratu da Eusko Skills olinpiadetan egiten duenarekin ere: "Nire burua proba-

## NOEMI TORREJON ETA MADDI ETXABE .....

Mekan ere eskaintza zabala dago lanbide heziketan, baina gaurkoan gizonezkoen lanbide bezala ikusiak dauden moduluak ikasten ari diren bi neska ekarri ditugu erreportaje honetara. Noemi Torrejon (Elgoibar) goi mailako galdaragintza ikasten ari da. 18 urte ditu eta lehenengo mailan dago, baina aurretik erdi mailako beste modulo bat ere egin zuen. DBH amaitu zuenean aukera desberdinak izan zituen eskuartearen, eta hainbat eskola bisitatu zituen, etorkizuneko ikasketak aukeratu aurretik. Mekara egin zuen bisita batean erakutsi zioten galdaragintza zer lantzen zuten, eta besteak beste, plano batzuk erakutsi zizkieten. Berari betidanik gustatu izan zaio marraztea, eta planoak ikusi zituenean



*Idoia Royo eta Maialen Gorostidi*



*Ander Torquemada*

tzera joan nintzen, beste eskola batzuetako ikasleekin alderatuta zein maila neukan ikusi nahi nuen eta oso pozik etorri naiz". Hiru egunetan egin behar izan zituen probak, eta 15 bat ikasleren artean hirugarren sailkatu zen, Andoaingo bi ikasleren atzetik: "Beste askok baino maila hobea neukala ikusi nuen".

Etorkizunerako itxaropentsu daude IMHko hiru ikasleak eta uste dute ez zaiela lanik faltako: "IMHn lan mundurako ondo prestatzen dituzte ikasleak eta normalean ikasle gehienek aurkitzen dute lana", esan dute hirurek. Emakumezkoek ere Lanbide Heziketan lekua "berdin-berdin" dutela defendatzen dute hirurek: "Ez badira etortzen emakumeak Lanbide Heziketara ez dutelako nahi izango da, lekua berez badaukagulako, beste guztiek bezala", esan du Idoia Royok.

*Noemi Torrejon*



erabaki zuen ikasketa haiek egin nahi zituela. Galdaragintza gizonezkoen mundua dela uste du, baina galdaragintza astuna eta arina bereizten ditu, eta bere ustez, galdaragintza arina oso ondo

egokitzen zaie emakumeei: "Pieza astunak mugitzeko indarra behar da eta ni hor ez naiz ikusten, baina galdaragintza arinean ondo ikusten dut nire burua". Erdi mailako gradua egin zuenean enpresa batean egin zituen praktikak eta emakume bat zebilen soldaduran: "Poz handia eman zidan emakume batekin topo egiteak". Bere ustez emakumeak berdin-berdin izan daitezke soldatzaile, eta pieza txikiak soldatzeko gizonetzkoek baino esku hobea dutela uste du, gainera: "Pazientzia handia daukagu eta pulsu hobea". Enpresetan, gizonetzkoentzako modukoak diren postuetan emakume gutxi ikusten dira oraindik, baina bere esperientziatik dio emakume horiek oso ondo hartzen dituztela enpresetan. Berak animatzen ditu emakumeak Lanbide Heziketara: "Batzuek oso argi dute Batxilergoa ikasi eta gero unibertsitatera joan nahi dutela eta hori ere oso ondo dago. Unibertsitatean beste balio batzuk irakasten dituzte, oso interesgarriak baita ere, baina gu oso ondo prestatzen gaituzte lanerako". Eusko Skills olinpiadetan lehiatu da estreinakoz, eta oso urduri joan zela aitortu du. Hamabi lagun lehiatu ziren bere kategorian, eta bi egunez gogor lan egin behar izan zuen. Sari banaketa ekitaldian bere izena esan zutenean pozez zorutzen jarri zen: "Hunkitu ere egin nintzen, ez nuen espero eta hirugarren saria eman zidaten. Niretzat sekulakoa izan zen". Maila ona aurkitu du olinpiadetan, lan onak ikusi zituen eta bere lana hiru onenen artean aukeratu izana ohore bat izan da beretzat. Planoak marraztu eta gero soldatzea gustatzen zaio. Enpresa askotan badaki gizonetzkoak nahiago dituztela postu hauetan "indar handiagoa" dutelako, baina bere ustez ez da dena indarra, beste ezaugarri batzuk ere behar dira horrelako postuetan eta emakumezkoak ere berdin-berdin lan egin dezaketela dio. Ikasketak amaitu ostean lana bilatuko duen esperantza dauka, "lan duin bat": "Lanbide Heziketak lanerako irtenbide asko eskaintzen ditu, eta gainera, ondo ordaindutako lana izaten da".

Maddi Etxabek (Oikia) ere argi zeukan DBH ikasketak amaitu ostean Lanbide Heziketarako bidea hartuko zuela. Baserrian bizi da eta umetatik izan du gertuko harremana traktoreekin, autoekin eta motorrekin oro har, eta garbi zuen bide hori hartu nahi zuela: "Askok ez dute jakiten zer ikasi nahi duten, baina nik oso argi neukan". 17 urte ditu eta erdi mailako libilgailuen Elektromekanika ikasten ari da Mekan. Bigarren mailan dago, eta honen ostean goi mailako moduloa egiteko asmoa dauka. Gizonezkoena izan ohi den mundu horretan barneratzea izan da bere hautua eta etxean ere oso ondo hartu dute bere erabakia: "Etxean, zorionez, nahi duguna ikasteko askatasuna eman digute, eta gustuko ikasketak aukeratzeari eman izan diote gurasoek garrantzia". Berdintasunaren bidean pausoak eman behar direla uste du, eta emakumezkoak horrelako lanbideetan barneratzea garrantzitsua iruditzen zaio: "Manifestazioetan berdintasuna aldarrikatzea ondo dago, baina gure partetik ekintzak dira beharrezkoak". Alor honetan mutirik dira nagusi, eta bere gelan neska bakarra da: "Lehenengo mailan hasi dira aurten bi neska eta goi mailako zikloan ere badago beste bat, baina oso gutxi gaude oraindik". Auto konponketa tailer batean lan egitea gustatuko litzaioke, autoek



Noemi Torrejon



Mekako ordezkariak



Maddi Etxabe

duten arazoa aztertu eta konpontzen. Maddi Etxabe bere alorreko ordezkaria izan da Eusko Skills olinpiadetan, eta aitortu du probak ez zitzaizkiola oso ondo irten: "Oso urduri jarri nintzen eta probak erdizka egin nituen, baina esperientzia moduan oso interesgarria iruditu zitzaidan".

Ikasle asko noraezean galduta ibiltzen dira etorkizuna erabakitzeko orduan. DBHko ikasketak amaitu ostean beraien etorkizuna baldintzatuko duten erabaki garrantzitsua hartu behar izaten dute, eta askok ez dute, jakiten nondik jo. Batxilergoa egin eta unibertsiterako bidea hartzen dute batzuek, beste batzuek, Batxilergoa egiten dute baina bi urte horiek egin ondoren, Lanbide Heziketara jotzen dute, eta badira beste asko Batxilergora ere jotzen ez direnak. DBHko ikasketak amaitu ostean erdi mailako Lanbide Heziketako moduloetan izena emateko aukera dago, eta ikasle batzuentzako horixe izaten da aukerarik onena. Ez da bata bestea baino hobea, bakoitzak berea aukeratzeko da gakoa.





## Himalayan dagoen Mera Peak mendia igo du Ainhoa Lendinezek, bost emakumez osatutako espedizioan

Everest mendiaren hegoaldean dago Mera Peak (6.476 m.) mendia, Nepalen. Duela bi urte Everest Trail Race lasterketan hartu zuen parte Ainhoa Lendinezek munduko mendirik garaienak dauden Asiako herrialde horretan, eta itzuliko zela agindu zuen paraje eder haiek ezagutu ostean. Oraingoan, mendi handi batera egin duen estreinako espedizioan parte hartzera itzuli da. Bost lagunekin joan zen, denak emakumezkoak. "Ni nintzen gazteena. Seme-alabak dituzten amak eta langileak ziren espediziodideak, eta trekkinean gindoazela atentzioa deitzen genuen, bidean gurutzatzen genituen askok esaten baitziguten ez zeudela ohituta bost emakumez osatutako espedizioa ikustera", azaldu du mendizale elgoibartarrak. Hamabost egun egin dituzte Nepalen eta joan den barikuan itzuli zen etxera. Bostetik hiruk lortu zuten tontorrera ailegatzea. "Nik, egia esan, gaizki pasa nuen, urdaila itxita, ezin ezer jan... hotz ikaragarria. Bost pauso eman eta atseden hartzera gelditzen nintzen. Altueraren ajeak nabaritu zituen nire organismoak: buruko mina, zorabioa, goragalea. Kilimanjaroren 5.800 metroak ziren orain arte sekula egon naizen garaiena altuena eta igarri dituk oxigeno ezaren eraginak. Aldiz, nire lagun bat udan apenas entrenanatu gabe joan da, eta hari ez dio hainbeste eragin altuerak. Kontua da, azkenean lortu nuela tontorra eta han goitik Makalu, Everest, Cho Oyu... denak eduki genituelako parez pare. Ikusmira ederra. Esperientzia gogorra bezain polita izan da mendi handi batera egin dudana estreinako espedizioa, zailtasun teknikorik gabekoa izan arren. Himalaya, baina, beste liga bat da. Hori bai, ia bost kilo argalduta etorri naiz. Orain berreskuratzea tokatzen da, ia Karakateko igoerarako ondo nagoen. Argi dudana da datorren urtean era honetako goi mendiko beste espedizio bat egin nahi dudala".

## Igor Torresek hirugarren egin du Euskadiko Master Kros Txapelketan, bere adin tartean



Laudioko Ibar Krosaren XXXVI. ekitaldia jokatu zuten domekan, eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Master esparruko atleta onenak batu ziren Euskadiko Master Kros Txapelketa baitzegoen jokoa. Guztira 400 saltakari lehiatu ziren laudioko Ellakuriko zelaietan prestatu zuten ibilbidean, hamalau lasterketetan. Master mailakoan 35-50 artekoen kategorian lehiatu zen Igor Torres Castilla (Elgoibar, 1981) eta bere mailako sailkapenean hirugarren postua eskuratu zuen Euskadiko Master Kros Txapelketan, 16:50eko denborarekin. Bere mailan Igor Garcia Zarraga izan zen azkarena (16:05.00) eta Sergio Mijancosek egin zuen bigarren (16:44).

## Boluntarioak behar ditu Morkaikok Karakateko Igoera antolatzen laguntzeko

Azaroaren 20an, zapatua, jokatu da Karakateko Igoera mendi lasterketaren 27. ekitaldia, iazko etenaren ostean. Morkaiko mendi taldetik jakinarazi dute boluntarioak behar dituztela lasterketa antolatu ahal izateko. Karakateko Igoerako irteeratik, Kalegoen plazatik, Agerre baserri parera arteko bidean dauden bidegurutzak zaintzeko prest dauden boluntarioak behar ditu Morkaikok bereziki, eta baita antolakuntzako beste zenbait lan egiteko prest dauden boluntarioak ere. Laguntzeko prest daudenek [morkaiko@morkaiko.eus](mailto:morkaiko@morkaiko.eus) helbidera bidali behar dituzte euren datuak: izen-abizenak eta telefono zenbakia. Hala egiten dutenekin eurek jarriko dira harremanetan.



Francon denporakua izan: Aspaldikoak diren gauzez esan ohi da. *Ez egik kontu hori aittatu, Francon denporakua dok eta.* Ikus **Jesusen denporakua izan.**

## Historia aurreko gizakiak erabiltzen zituen tresna eta armen erakustaldi praktikoa egingo dute Morun domekan

Elgoibarko Hezur Museoak bi ekintza antolatu ditu Morkaikoren laguntzarekin astebururako. Batetik, bisita gidatua egingo dute bihar Hezur Museoan, 17:00etatik 19:30era. Artetxe auzoan dagoen museoa ezagutzeaz gainera, sua sortu eta historiaurreko zintzilarioak egiteko tailerlean parte hartzeko aukera izango dute hala nahi dutenek. Museoaren sortzaile Jose Julian Marquezek emango du ikastaroa. Bestetik, domekan, Historiaurreko gizakiak erabiltzen zituen tresna eta armen erakustaldi praktikoa egingo dute Moru mendian. Idotorbeko aparkalekuan batuko dira 10:45ean, denak elkarrekin joateko Morura, eta 11:00etan hasiko da erakustaldia. Besteak beste, gezi eta jaurtigailuekin tiraldiak egingo dituzte parte-hartzaileek. Morura joateko moduko eguraldirik egiten ez badu, bertan behera lagako dute tiraldia eta museoko atak irekiko dituzte, bisitatu nahi duenarentzat.




## Zuberoako ikastolei laguntzeko otarrak salduko ditu Elgoibarko Izarrak

Elgoibarko Izarrak Zuberoako ikastolen aldeko saskiak salduko ditu. Hiru saski egongo dira aukeran: Ahuzki, 40 eurokoa; Irati, 55 eurokoa, eta Orhi, 70 eurokoa. Denak Zuberoako produktuz osatutako saskiak dira. Ahuzki: xerriki patea, ahate gibel berrosatua, ezti, bizkotxo poltsa eta ardi gazna. Irati: xerriki patea, ahate gibel berrosatua, xahalki xehatua saltsan, ezti, bizkotxo poltsa eta ardi gazna. Orhi: Ahate gibela, bizkotxo gatzatuak, lukainka, azafrai erreximenta eta ardi gazna. Saskiak eskatzeko azken eguna azaroaren 26a izango da. Interesatuek [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) helbidera idatzi edo 943 741 626 telefonora deitu dezakete.

## Elgoibarko Hiri-gutunari buruzko esku-orria banatu du Elgoibarko Udalak herriko ikasleen artean


Elgoibarko hiribilduaren 675. urteurrena dela eta, Elgoibarko Udalak ikastetxeei zuzendutako esku-orri bat argitaratu du, Hiri-gutunari lotutako honako edukiekin: Hiri-gutunaren definizioa, bere berezitasunak, eta Elgoibarko udalerriko mugarren inguruko informazioa. Elgoibarko alkate Ane Beitiak azaldu duenez ekimena 675. urteurreneko ekintzak definitu zirenean proposatu zuten herriko hainbat eragilek eta historialarik. "650. urteurrena bete zuenean Elgoibarko Hiri Gutuna kaleratu zen, eta oraingoan herritar gazteenengan jarri nahi izan dugu fokua, ezagutu dezaten herri honen sorrera nola eman zen, ezaugarriak, mugak... Garai batean ikastetxeetan eman ohi zen Hiri Gutunaren berri, orain ohitura hori berreskuratu nahi dugu eta belaunaldi berriak jantzi Elgoibarren historian, gure erroetan".





## Umeen hurbileko helduen hizkuntza-portaeren garrantziari eta estrategiei buruzko saioa emango du Paula Kasaresek

Euskaraldiaren aurtengo hutsunea baliatuta, *Haurren aurrean, helduok heldu* egitasmoa antolatu dute, azaroaren 22tik abenduaren 5era arte. Besteak beste, bistaratu nahi dute helduek ere badutela zeresana, eta zeregina, euskararen erabileran aurrepausoak emateko orduan. Hasteko, umeen hurbileko helduen arteko hizkuntza portaerari eragiteko sentiberatze eta kontzientziatze saio parte hartzailea antolatu dute azaroaren 9rako. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian izango da, 17:00etan hasita. Paula Kasaresek (Iruñea, 1969) gidatuko du saioa. Euskal Filologian nahiz Antropologian graduaduna eta Soziolinguistikan doktorea da, eta NUPeko Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailean irakasle dihardu. Haurren hizkuntza sozializazioaren eta familien hizkuntza politikaren arloetan ikertzailea ere bada, eta horrez gain hiru liburu eta hainbat artikulu zientifiko ere argitaratu ditu. Saio parte hartzaile honetan umeen hurbileko helduen hizkuntza portaeren garrantziari eta estrategiei buruz mintzatuko da. *Haurren aurrean, helduok heldu* egitasmoa Euskaltzaleon Topaguneak prestatu du eta Euskal Herriko 70 herritan egingo da ariketa. Elgoibarri dagokionez, Elgoibarko Izarra, Udala, Elgoibar Ikastola, Herri Eskola, Elgoibarko Haurreskola eta Ludoteka daude ekimenaren atzean.



### 'Perez sagutxo' eta 'Argitxo iratxo' antzerkietarako sarrerak zenbakitu gabeak izango dira

Udaleko Kultura Sailetik jakinarazi dutenez, Herriko Antzokirako sarrerak erosteko plataforma berriak akats teknikoren bat izan du, eta ondorioz, hainbat sarrera bikoiztuta saldu dira. *Losers* antzezlanean konturatu ziren akats honekin, eta orain gauza bera gertatu zaie *Perez sagutxo* eta *Argitxo iratxo* emanaldietarako sarrerekin. Hori dela eta, orain arte saldutako sarrera guztiak zenbakitu gabeak bilakatzea erabaki dute, hau da, sarrerak baliozkoak dira, baina ilara eta jarlekua ez dira gordeko. Egunean bertan antzokira sartu eta libre dauden jarlekuetan eseri beharko dute ikusleek. Kultura Sailetik barkamena eskatu dute, eta gaineratu dute datozen emanaldietarako arazoa konponduta egotea espero dutela.

### Eriz magoak 'Auskalo' ikuskizuna aurkeztuko du bihar, Mendaron

Eriz Magoak *Auskalo* ikuskizuna eskainiko du bihar, 17:00etan, Mendaroko San Agustin kulturgunean. Fantasiak eta errealitateak bat egingo dute ikuskizun horretan, eta magia egingo du. Adin guzietako publikoarentzako ikuskizuna da, eta magia eta umorea uztartzen ditu Eriz Magoak. Sarrerak salgai daude Mendaroko udaletxean eta Puxikan, bi euroan.

### Iturraran parketxera familia-irteera, azaroaren 13an

Elgoibarko Izarrak Iturraran parketxera familia-irteera antolatu du, Udalaren laguntzarekin. Azaroaren 13an izango da irteera. 9:30ean irtengo dira King-Kongeko autobus geltokitik, eta 13:30 aldera itzuliko dira. Naturaz eta familiaz euskaraz gozatzeko irteera izango da. Bertan, mapa bat eta iparrorratz bat banatuko dizkiete familiei, eta lorategi botanikoan zehar orientazio proba bat egin beharko dute. Izena emateko azken eguna azaroaren 8a izango da. Interesatuek [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) atarian eman beharko dute izena. Elgoibarko Izarrako bazkideentzako prezioa ondorengoa da: helduak 8 euro; haurrak 5 euro. Bazkide ez direnentzat, aldiz, hauxe: helduak 10 euro; haurrak 6 euro. Familia bakoitza heldu eta ume batez osatuta egon beharko da gutxienez.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta beharrezkoak diren tituluak ditut. Etxeko langile moduan edo orduka aritzeko prest. ☎ 631 342 098

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak zainduko nituzke, goizez. Arreta soziosanitario titulua daukat. Esperientzia. ☎ 653 160 233

Lan bila nabil. 11:00etatik aurrera egingo nuke lan. Zaintza lanetan esperientzia handia. Arreta soziosanitarioko titulua daukat. Euskalduna naiz. ☎ 688 725 715

LH eta DBHko klase partikularrak emateko prest nago. Gizarte lana, Gizarte hezkuntza eta psikologiako graduak ikasten ari naiz. Euskalduna eta gaztea naiz. ☎ 649 446 529

Mutila lanerako prest. Adinekoak zaintzeko edo igeltsero, pintore zein arotz laguntzaile aritzeko prest. ☎ 642 196 564

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat, eta garabia erabiltzeko titulazioa ere bai. ☎ 641 322 939

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan. Etxeko langile moduan. ☎ 631 425 686

Haurrak zaintzen edota eskola partikularrak ematen egingo nuke lan. DBH4ra arteko ikasleei laguntzeko aukera daukat. Euskalduna naiz. ☎ 688 624 155

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Goizetan eta orduka. ☎ 641 821 288

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat zaintza lanetan eta sukaldari laguntzaile lanetan. ☎ 631 677 339

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat zaintza lanetan eta sukaldari laguntzaile lanetan. ☎ 643 776 157

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. ☎ 643 977 786

Adinekoak eta umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukalde lanetan aritzeko prest nago. ☎ 602 047 812

LH eta DBHko klase partikularrak emateko prest nago, arratsaldetan. Magisteritza ikasketak ditut. ☎ 688 626 156

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 662 460 266

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan eta baita asteburuetan ere. ☎ 643 584 198

**Eskaintzak**  
Ingeles Filologian lizentziatua den pertsona behar da eskola-laguntzarako. Ordutegi eta egunak adosteko. ☎ 660 969 679

**ETXEBIZITZAK.....**  
Apartamentu bat alokatzen dut Elgoibarren, pertsona bakarrarentzat edo bikote batentzat aproposa. ☎ 679 866 923

**GARAJEAK.....**  
Garaje marraduna alokatzen dut Lekuederren, 4. solairuan. ☎ 660 042 159 (arratsaldez deitu)

**BESTELAKOAK.....**  
Gure Bide elkarteak bazkide egiteko aukera eskaintzen du. Informazio gehiago nahi izan ezkerro, mezu bat idatzi behar da [gurebide@gmail.com](mailto:gurebide@gmail.com) helbidera.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzkoako Finantza Administrazioen Kontseilua</p>  <p><b>ROSA Ma PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b><a href="mailto:rosapf@telefonica.net">rosapf@telefonica.net</a></b></p>	<p><b>Etxebizitza bat erosi berri dut, lehen jabe bakarrarena zen eta zatiketa horizontala egin gabe zeukan etxalde batean [jabetza horizontala ondasun higiezin bateko jabeek beste jabeekiko betebeharrak eta eskubideak ezartzen dituen arau multzoa da]. Jakin nahiko nuke ea beharrezkoa den etxaldea jabetza horizontalaren arabera zatitzea.</b></p> <p>Jabe bakarrarena den etxalde bat jabe gehiagoren esku gelditzen denean ezinbestekoa da eraikinaren zatitze horizontala egitea, bereziki jabeekide bakoitzak ordaindu behar duen gastu komunaren portzentajea eta ondasun higiezinaren gaineko zerga kalkulatzeko orduan arazorik sor ez dadin. Zatitze hori egin ezean legeak ezartzen du ondasun-erkidegoei dagokien araudia aplikatu behar dela gastuak zeinek eta zein neurritan ordaindu behar diren kalkulatzeko. Zatitzea onartzen bada, eskritura publikoa egin beharko da eta Jabetza Erregistroan jaso aldaketa, balioa izan dezan. Dokumentu pribatu bat ere egin daiteke, baina hori ezin da Erregistrora eraman, eta beraz, sinatu dutentzat bakarrik izango du balioa, baina ez gerora ager daitezkeen hirugarren pertsonentzat.</p> <p><b>AHOLKUA: Prozesu hori konplikatu xamarra denez, gomen-dagarriena profesional bat egitea da. Kasu horretan, egokiagoa izango zen etxalde horren jabeak eraikinaren zatitze horizontala egin izan balu, etxebizitza bat saldu aurretik. Izan ere, etxek jabe guztiak jarri beharko dira ados horretan, eta baita etxebizitza edo lokal bakoitzari ezarriko zaion kuotaren zenbatekoan ere.</b></p> <p><b>ASESORIA GO/R</b> <b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
--	--





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak)  
baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora,  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo  
📞 688 634 044 bidalita.



Zorionak,  
**Luma**, 6 urte  
handi bete ditu-  
zulako! Ondo  
pasa eguna! Fa-  
miliakoen par-  
tez.



Zorionak, **Te-  
resa Ines!**  
Asko maite zai-  
tugu, poxpolin.



Zorionak,  
**Maialen!**  
Ondo pasa zure  
6. urtebetzea!  
Maite zaitugun  
guztion partez!



## KONTSULTATEGIA



*Nola zaindu behar  
ditugu gure hortzoiak?  
Eskuilatu behar al dira  
hortzoiak?*



Ba al dakizue nola zaindu behar dituzuen hortzoiak? Gaurko kontsultategian azalduko dizuegu. Aldaz Hartz Kliniketako doktoreen arabera, oso garrantzitsua da hortz-gainazal guztiak eskuilatzea, baina baita hortzak eta hortzoiaren arteko lotura-eremua ondo garbitzea ere bakterio-plakak kentzeko eta hartara, arazo periodontalak (gingibitisa, periodontitisa, periimplantitisa) saihesteko. Gure hortzoiak ez kalte-tzeko, ez mintzeko, modu egokian eskuilatu behar ditugu. Hortzak eta hortzoiak garbitzeko eta zaintzeko, baliabide mekanikoak (eskuizko eskuila edo eskuila elektrikoa, hortzetako zeta edo inguruko eskuila, ureztatzailea) eta baliabide kimikoak (hortzetako pasta, kolutorioak/ahoko irakuzketa) erabiliko ditugu. Eta gogoratu zalantzarik izanez gero Aldaz hartz kliniketan gustura hartuko zaitugula.



Erretratu bakarrek agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.  
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€  
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**ALDAZ HORTZ KLINIKA**  
San Bartolome, 22- 20870 Elgoibar  
[iyd@dentalaldaz.com](mailto:iyd@dentalaldaz.com)

**943 366 377**

## 5 BARIKUA

**16:30** Odol ateratzeak, Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

**20:30** Antzerkia: 'Erik eta Win'. Herriko Antzokian. Sarrerak, *herrikoantzokia.eus* webgunean erosi daitezke aurrez, eta geratzen badira, egunean bertan Herriko Antzokiko leihatilan.

## 6 ZAPATUA

**11:30** Antzinako ogibideen erakustaldia, Erreminta Makinaren Museoan: Lasurko Goikola baserriko Karmen Esnaolak artilea egiteko prozesua erakutsiko du.

**13:00** Ekitaldi politikoa. EHBilduk antolatuta, Kalegoen plazan.

**17:00** Ate irekiak: Hezur Museoan. Morkaikok eta Hezur Museoak antolatuta, sua eta historiaurreko zintzilarioak egingo dituzte.

**17:00** Eriz magoa. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

## 7 DOMEKA

**11:00** Historiaurreko jaurtialdia, Morun. Hezur Museoak eta Morkaikok antolatuta, umeentzako ekitaldia izango da. Euria egiten badu, bertan behera geratuko da.

## 8 ASTELEHENA

**16:30** Hitzaldia: 'Ondasunen testamentua'. Elgoibarko Notaritzan lan egiten duen Esther Mujikak eskainiko du, jubilatuen biltokian. Hitzaldi irekia da, baina parte hartzeko ezinbestekoa da Covid-19aren aurkako txertoa hartuta izatea eta musukoa eramatea.

**19:00** Gaurgeroaren batzarra. Besteak beste, anbulatorioaren gaia, San Lazaro eta Pilar zahar etxeen gaia eta pentsioen ingurukoak jorratuko dituzte. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 10 EGUAZTENA

**16:30** Hitzaldia: 'Sintromaren autokontrola'. Edurne Uranga eta Eduardo Tarmayo medikuek emango dute. Hitzaldi irekia da, baina parte hartzeko ezinbestekoa da Covid-19aren aurkako txertoa hartuta izatea eta musukoa eramatea.

## 11 EGUENA

**18:00** Helduentzako ipuin kontaketa: 'Otsandreak korrika'. Amaia Zinkunegiaren eskutik, Lilan.

**18:30** Informazio mahaia, King-Kongen. Fibromialdia, entzefalomieliitis eta sentiberatasun kimiko anizkoitza. Bizi Bide elkarteak eta Gizarte Zerbitzuen Sailak antolatuta.

## Zinea (Herriko Antzokian)



### 'Érase una vez en Euskadi'

6 zapatua: 19:00 / 22:15

7 domeka: 19:00

8 astelehena: 21:00

### 'Oltxiak'

7 domeka: 16:30

## ETA, DEBABARRENEAN ZER?

### KARST JAIALDIA: HARRIA ETA HERRIA

Azaroak 6, zapatua  
Deban, Zumardian.

Euskal Kostaldeko Geoparkeak antolatuta, 12:00etan hasiko da jaialdia. Hitzaldiak, bisita gidatuak, herri kirolak eta beste hainbat ekitaldi izango dira egun osoan zehar. Horrez gain, eskualdeko baserrietako produktuak erosteko aukera ere egongo da merkatu txikian. Goierriko talogileak ere etorriko dira, eta Udane Juaristik kars-taren horma irudi bat egingo du.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

5 BARIKUA	6 ZAPATUA	7 DOMEKA	8 ASTELEHENA	9 MARTITZENA	10 EGUAZTENA	11 EGUENA	12 BARIKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola

\* Fernandez:  
Herriko Enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

Urte guztian, gauz: 22:00-09:00  
Arantzazu Izpizua, Ibarburutze, 7 (Eibar)  
943 201 912





## *Pilar Mendizabal Elgarresta*

2021eko urriaren 28an hil zen, 91 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zenbat bizipen,  
zenbat oroitzapen.  
Betirako gure bihotzean.  
Maite zaitugu***

Etxekoak




IV. URTEURRENA

## *Txomin Barrenetxea Urkiola*

*"Borrajén"*

2017ko azaroaren 5ean hil zen, 78 urte zituela.

***Aitxitxa Txomin, zure indarra eta adorea  
gogoan dugun bitartean, beti izango zara gure artean.***



# ETXE BERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA



**943 741 327 (24 orduz)**

**635 756 295**

**629 635 203**

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

# GREMIONEN GIDA

## IGELTSERITZA

**A. Garate**

Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkia  
Elgoibar

**610 226 651**

## ELEKTRIZATEA

**egoluz**

ELEKTRIZATEA S.L.

Andres: 630 957 345  
677 512 462

Pedro Migel Uruzuno, 14 behe  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**

Errasoto kalea, 15 behe - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

**943 744 019  
605 713 168**

## PINTURA

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

## LEIHOAK

**LODOSO  
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90



## ARROZTEGIAK

**Ulazia**

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industrialdea, 1-O' 1-P  
943 740 547



**MAR**  
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behe  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriamar@hotmail.com



**iraolagoitia**

arroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

Arroztegia Carpinteria

**ASIMA**

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

**BIENA S.L.**  
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus



## ITURGINTZA

**ongi** iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

**SANTANA**



Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behe  
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905

santanaiturgintza@gmail.com

**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
tienda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

BILTEGIA

San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

**MIGUEL AZPIRI**  
iturgina

Iturgintzako eta berokuntzako  
ordezkapenen konponketak.

**635 133 841**

**Berehalako zerbitzua  
ematen da!**

